



LEGAZPIKO
UDALA

Alkatea eta zinegotziaren erantzuna

Eskolako Agenda 21

2017-2018 ikasturtea

Legazpin, 2018ko maiatzaren 31n

Urtean zehar jasangarritasun arloan egindako lanetatik eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Urtero bezala, aurten ere zuen azalpenak entzutea oso interesagarria izan da.



Ondoren puntuz puntu zuek egindako proposamenak komentatuko ditugu:

1. Lurrak zaintzeko, parkeak babestea eta era naturalean uztea, etxebizitza gehiago ez eginez eta zuhaitzak ez moztuz.

Zuen proposamena Mirandaola eta Urtatzazar parkeei buruzkoa dela ulertu dugu.

Udal Plan Orokorraren arabera parke horiek parke izaten jarraituko dute, eta bertan ez da etxebizitzarik eraikiko.

Zuhaitzak egotea interesagarria da bioaniztasunerako eta aire garbia edukitzeko ere. Horregatik Udalak zaindu egiten ditu eta ez du mozteko asmorik.

2. Berdeguneetan jendeak belarra ez zapaltzeko kartelak jartzea.

Guk bi berdegune mota bereizten ditugu: loreak dituztenak eta belarra besterik ez dutenak.

- Loreak eta landareak dituztenak ez dira zapaldu behar. Hori argi dagoela iruditzen zaigu eta loreak daudenez ez dugu kartelik jartzearen beharra ikusten. Gure ustez, denok dakigulako lore bat zapalduz gero egoera larrian gelditzen dela. Adibidez udaletxe atzealdean.
- Belarra besterik ez duten berdeguneak berriz disfrutatzeko direla uste dugu eta atsegina da zapaltzea. Hori bai, erabilera egokia emanda. Agirre-Etxeberriko berdegunean, adibidez, egokia da belarretan eserita egotea, baina bizikletarekin zirkuituak eta saltoak egitea ez dugu batere egokia ikusten.

3. Ibai bazterrak zaintzeko zuhaitzak landatzea, batez ere bertako zuhaitzak, eta ibai ondoan zakarrontziak jartzea.

Ibai bazterrak URA agentziaren ardura dira eta beraiek zaintzen dituzte.

Legazpiren kasuan, Urola ibaia herritik pasatzen den eremuetan nahiko zuhaitz daudela esango genuke. Eta hori zaindu behar dugu.

Zakarrontzien proposamenari buruz ez dugu argi ikusten gehiago jartzeak ibaia garbiago mantentzea ekarriko duenik. Hala ere, gaia aztertuko dugu.

4. Erabiltzen ez diren eraikinak botatzea, lurzorua lortzeko.

Gai hori arautzeko Udalak plan bat dauka: Hirigintza Antolatzeko Plan Orokorra.

Gaur egungo Planean ez da horrelako esku-hartzerik aurreikusten.

Plan hori berritzen denean orduan aztertuko dugu eraikin horiekin zer egin.

5. Bertako produktuak saltzeko lokal bat irekitzea, baserritarrei erraztasunak emanez.

Proposamen hau duela urte batzuk aztertu genuen. Horrelako dendak bisitatu genituen eta proposamen bat egin genien baserritarrei lokal bat utzi eta beraien artean antolatzeko.



LEGAZPIKO
UDALA

Zaila zen baserritarrak beraien artean horretarako antolatzea eta proiektua bertan behera uztea erabaki zuten.

Bertako produktuak balorean jarri eta salmenta bultzatzeko "Bertatik bertara" proiektua jarri zen martxan. Informazio gehiago hemen lortu dezakezue: <http://bertatikbertara.eus/>

Horrez gain kontsumo talde bat ere sortu zen bertako produktuak erosteko.

Gaia aztertzen jarraituko dugu.

6. Urtatzako parkea berritzea: mahai eta iturri gehiago, kanasta edo porteriak eta kirol egitura edo tresna batzuk jarritz.

2018rako aurrekontu parte-hartzaileetan Urtatzazar parkean bizikletentzako zirkuitu bat jartzea proposatu zuten herritarrek. Eta aurten gauzatuko da, parkean kirola egiteko beste aukera berri bat emanez.

Bestalde iturri bat jarri zen eta uste dugu parkearen dimentsiorako nahikoa dela.

Eta bukatzeko **eskerrik asko** urtero egiten duzuen lanagatik, guri horren berri emateagatik eta urtero urtero Zuhaitz Egunean eta Erreka Egunean parte hartzaile aktibo izateagatik!!

Gozatu oporrez!!!!

LURRALDE TASUNEN ZINEGOTZIA

ALKATEA,

Izenp.: Eric Galvez

Izenp.: Koldobike Olabide

